

## **CURRICULUMENKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

1. 1H: Ahozko hizkuntza beren adinekoekin eta helduekin harreman positiboak izateko modurik egokienean erabiltzea, komunikazio asmoen arabera, ahozko mezu desberdinak ulertu eta entzuteko arretazko eta errespetuzko jarrera izatea.

2H: Ahozko hizkuntza beren adinekoekin eta helduekin harreman positiboak izateko modurik egokienean erabiltzea, komunikazio asmoen arabera, ahozko mezu desberdinak ulertu eta entzuteko arretazko eta errespetuzko jarrera izatea.

2. Ikasgelako eta inguru hurbileko testu idatziekiko interesa izan eta haiek erabiltzen, haien asmoak ulertzen eta idatzizko kodearen ezaugarri batzuk ezagutzen hastea. Ikasgelan irakurri eta idazteko jardueretan interesa izan eta haietan parte hartzea.

3. Arte eta ikus-entzunezkoen hizkuntzen baliabideak, materialak eta teknikak erabiliz adierazi eta komunikatu, haien ahalbideak aztertu, beren produkzioekin gozatu eta beren esperientzia komunikatibo eta estetikoak besteekin partekatzeko interesa izatea.

## **GURE EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

1. Animalia batzuen ezaugarriak ezagutzen ditu.
2. Animalia batzuk haien kontinenteetan kokatzen ditu
3. Narrastiak, hegaztiak, ugaztunak, arrainak eta anfibioak bereizten ditu.
4. Animalien soinuak desberdintzen ditu.
5. Animalien inguruan egiten diren joko eta antzezpenetan parte hartzen du.
6. Ingurumenaren zaintzarekiko jarrera baikorra adierazten du.